



## BULEGO-MATERIALA – INGURUMEN-IRIZPIDE SINPLIFIKATUAK

### Prozedura ireki bidez kontratatzeko eta lehiaketa bidez esleitzeko ingurumen-irizpideak

Oinarrizko maila	Maila aurreratua
<b>KONTRATUAREN XEDEA:</b>	<b>KONTRATUAREN XEDEA:</b>
Lehiaketa honen helburua da ingurumena gehiago errespetatzen duen bulego-materiala lortzea.	Lehiaketa honen helburua da ingurumena gehiago errespetatzen duen bulego-materiala lortzea.
<b>ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):</b>	<b>ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):</b>
<p><b>BULEGO-MATERIALA</b></p> <p>1. Libretek eta gutun-azalek paper birziklatuzkoak izan behar dute (gutxienez % 65 kontsumitu ondorengoak).</p> <p><b><u>Egiaztapena:</u></b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 2., 3. eta 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p> <p>2. Arkatzek [portaminak erosi ezean] lakatu gabeko zurezkoak izan behar dute [hautatu aukera bat edo beste: produktua bizitza luzekoa da edo erabilera bakarrekoa].</p> <p><b><u>Egiaztapena:</u></b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1. eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p>	<p><b>Bulego-materialak</b></p> <p>1. Paperezko produktu guztiek paper birziklatuzkoak izan behar dute (gutxienez % 65 kontsumitu ondorengoak).</p> <p><b><u>Egiaztapena:</u></b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 2., 3. eta 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p> <p>3. Arkatzek [portaminak erosi ezean] lakatu gabeko zurezkoak izan behar dute [hautatu aukera bat edo beste: produktua bizitza luzekoa da edo erabilera bakarrekoa].</p> <p><b><u>Egiaztapena:</u></b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1. eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p>

	<p>2. Plastikozko zorroek polipropilenoazkoak (PP), polietilenoazkoak (PE) edo zelulosa-azetatozkoak izan behar dute.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p> <p>4. Boligrafoak haien kargarekin erosi behar dira, edo material birziklatuarekin (gutxienez % 50) edo konpostagarrieekin (papera, zura, arto-fekula, plastikoa konpostagarria...) fabrikatuta egon behar dute</p> <p><b>Egiaztapena:</b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 2., 3. eta 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p> <p>5. Kolek eta zuzentzeko likidoek ezin dituzte oinarrian disolbatzaile lurrinkor organikoak izan, baizik eta urtsuak edo lehorrak.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> <i>Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p>
	<p><b>Garraiatzeko berriz erabiltzeko bilgarriak</b></p> <p>6. Produktuen horniketa berriz erabiltzeko kutxetan egingo da (eta esleipendunak hurrengo entregan berreskuratuko du).</p> <p><b>Egiaztapena:</b> <i>Berme hau aurkeztu beharko da: 1.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</i></p>
<p><b>ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:</b></p>	<p><b>ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:</b></p>
<p><b>Produktuen ingurumen-hobekuntzak, gehienez 15 puntu</b></p> <p>3. Baloratuko da proposatutako bulego-materialari dagokien</p>	<p><b>Produktuen ingurumen-hobekuntzak, gehienez 20 puntu</b></p> <p>7. Baloratuko da proposatutako bulego-materialari dagokien</p>

artikuluek ingurumen-portaera hobea izatea. Horretarako, lizitatuzaileek produktuen zerrendan zehaztu beharko dute proposatutako artikuluek honako zein irizpide betetzen duten, hurrengo taulan adierazitako kodearen arabera.

**Egiaztapena:** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*

Irizpidea	Kodea	Egiaztapena
Material birziklaturen edukia (adierazi ehuneko zehatza)	1	2, 3, 4
Material bakarreko produktuak	2	1, 3
Paperezko edo kartoizko produktuak, erabat klororik gabeak (TFC)	3	2, 3, 4
Polipropilenoazko (PP), polietilenoazko (PE) edo zelulosa-azetato/-kautxo naturaleko substantzia plastikoak (borragometarako)	4	2, 3
Berriz kargatzeko produktuak eta haien kargak	5	1, 2, 3
Oinarri urtsua duten disolbatzaile-dun produktuak	6	2, 3
Produktu lehorrak, disolbatzaile-rik gabeak	7	1, 2, 3
Baso-ustiapen jasangarrietatik ateratako zura	8	4
I. motako ekoetiketaren batean (Aingeru Urdina, DGQA, Eskandinaviako Beltxarga, edo antzekoa) definitutako substantzia kaltegarrien irizpideak jarraituz fabrikatutako produktuak	9	4
Banakako ontzirik gabe banatutako produktuak eta/edo 5 edo produktu gehiagoko kutxetan banatuak	10	1, 3

artikuluek ingurumen-portaera hobea izatea. Horretarako, lizitatuzaileek produktuen zerrendan zehaztu beharko dute proposatutako artikuluek honako zein irizpide betetzen duten, hurrengo taulan adierazitako kodearen arabera.

**Egiaztapena:** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*

Irizpidea	Kodea	Egiaztapena
Material birziklaturen edukia (adierazi ehuneko zehatza)	1	2, 3, 4
Material bakarreko produktuak	2	1, 3
Paperezko edo kartoizko produktuak, erabat klororik gabeak (TFC)	3	2, 3, 4
Polipropilenoazko (PP), polietilenoazko (PE) edo zelulosa-azetato/-kautxo naturaleko substantzia plastikoak (borragometarako)	4	2, 3
Berriz kargatzeko produktuak eta haien kargak	5	1, 2, 3
Oinarri urtsua duten disolbatzaile-dun produktuak	6	2, 3
Produktu lehorrak, disolbatzaile-rik gabeak	7	1, 2, 3
Baso-ustiapen jasangarrietatik ateratako zura	8	4
I. motako ekoetiketaren batean (Aingeru Urdina, DGQA, Eskandinaviako Beltxarga, edo antzekoa) definitutako substantzia kaltegarrien irizpideak jarraituz fabrikatutako produktuak	9	4
Banakako ontzirik gabe banatutako produktuak eta/edo 5 edo produktu gehiagoko kutxetan banatuak	10	1, 3

<b>Garraiatzeko berriz erabiltzeko bilgarriak, gehienez 5 puntu</b>	
<p>4. Produktuen horniketa berriz erabiltzeko kutxetan egitea baloratuko da (eta esleipendunak hurrengo entregan berreskuratuko du).</p> <p><b>Egiaztapena:</b> Berme hau aurkeztu beharko da: 1.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).</p>	
<b>EGIAZTAPEN-DOKUMENTUAK (*):</b>	
1. Lizitatuzailearen adierazpena eta deskribapena	3. Fabrikatuzailearen adierazpena
2. Produktuaren fitxa teknikoa edo fitxa deskriptiboa	4. Ekoetiketak: Aingeru urdina (papererako); FSC edo PEFC (zurerako); DGQA, Europako etiketa ekologikoa, Zisne nordikoa eta beste batzuk (bestelako produktuak)

<b>OHARRAK:</b>
<p>Informazio gehiago nahi izanez gero, <a href="http://www.ihobe.eus">www.ihobe.eus</a> webguneko <b>Erosketa Publiko Berdearen atala</b> kontsulta dezakezu edo Ihoberekin harremanetan jar zaitezke, bide hauetatik:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tel.: 94 423 07 43</li> <li>• Helbide elektronikoa: <a href="mailto:compra.publica@ihobe.eus">compra.publica@ihobe.eus</a></li> </ul>